

ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: TRONPETA 2019ko MARTXOAREN 14a

2019ko martxoaren 14an Musikenek Ate Irekien jardunaldia antolatuko du **tronpeta** espezialitatean. Bertan Luis González irakasleak eta Musikeneko tronpeta ikasleek parte hartuko dute.

Nori zuzenduak?

Musikenen goi-mailako ikasketak egiteko interesa duten tronpeta ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten tronpeta ikasleak.

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Jardunaldian parte hartzeko aurrez erreserba egin beharko da gure webgunea eskura duzen **izen-emate orriaren** bitartez.

Jarduanaldiaren helburua

- Goi Mailako ikasketak egiteko interesa duten ikasleei eta bertan egongo diren irakasleei sarrera probei buruzko informazioa ematea, bertan eskatuko den maila eta gomendatzen den erreperitorioa barne.
- Ikastegiko ikasle eta irakasleak ezagutzea, zuzeneko kontaktu profesionala izateko eta Musikenen ikasteak zer dakarren hobeto ezagutzeko.
- Ikastegiko ikasleei entzun eta tronpeta irakaslearekin eskola bat ematea.

Lan-egitasmoa

9.30-10.30: Ate Irekien jardunaldiaren aurkezpena.

Tronpeta espezialitatearen ikasketa-planari buruzko hitzaldi informatiboa. Osatzen duten irakasgaiei buruzko azalpena eta irakasleak aurkeztea. Sarrera proben azalpena.

10.30-11.00: Jardunaldian izen eman dutenekin eta Musikeneko ikasleekin banakako eskolak.

11.00-14.00: Musikeneko tronpeta ikasleei eta jardunaldira etorri direnei bakarkako eskola irekiak.

16.00 -18.30: Jardunaldian parte hartu dutenei banakako eskolak.

19.00: Musikeneko tronpeta ikasle eta irakasleen eskutik entzunaldia.

Non egingo den

MUSIKENE Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Europa plaza, 2.

20018 Donostia-San Sebastián

Kontakturako telefonoa: 00 34 943.023.750

E-maila: info@musikene.eus

Mapan ikusi nahi baduzu: <https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Informazio gehiago behar baduzu harremanetan jarri Haize eta Perkusio instrumentuen Departamentu buruarekin: Rodolfo Epelde repelde@musikene.eus